

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urtarrilaren 29a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Sakana. Euskara bultzatzeko kanpaina antolatu dute hamazazpi taldek.

Eneka Maiz • «Poesia euskalkian ere egin daiteke».

Produkzio integratua:



nekazal ekologikorako bidea ote?

Nafarroako Gobernuak ohiko nekazal produkzioaren eta ekologikoaren zubia litzatekeen produkzio integratua arautu berri du. Kontsumitzaileek gero eta elikagai osasuntsuagoak eta seguroagoak eskatzen omen dituzte eta horri erantzun behar dio merkatuak. Dena den, nekazariak, iritzi ezberdinak dituzte.

Sakana ●

Euskara bultzatzeko kanpaina antolatu dute

Hamazazpi taldek sustatuta, helburua eskualdeko euskaldunak motibatzea da

Lizarra

Gaur bukatuko da Euskararen Astea

BIHAR AMAITUKO DA EGA ERTZEKO hiriko Euskararen Astea. Arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartera umeentzako herri kirolak eta jolasak izanen dira Foru enparantzan, Kulki taldearekin. Halaber, umeek egindako marrazki erakusketa izanen da jarraian. Euria eginez gero, ekitaldia Lizarra Ikastolako frontoian egingen da. Gaur, berriz, bertso afaria izanen da La Bota elkarteak: Peñagari-kano eta Mendiluze bertsolariak ariko dira, gaueko 10:00etan.

Baina gaurkoaz eta bihar-koaz gain, aste osoan ekitaldi anitz izan dira Lizarran. Euskararen Astea joan den asteartean hasi zen, iragan urtean arrakasta izugarria izan zuen ipuin kontalariarekin: Jose Mari Carrererekin. Aurtan *Kondoi baten istorioa* kontakizuna eskaini du, eta entzuleari irribarrea eta harridura eragin dizkio. Hilaren 27an, berriz, Nafarroako kobazuloen inguruko diapositiba emanaldia eskaini zuen Zatorrak taldeak. Atzo, osteguna, mintzaldia izan zen La Bota elkarteak: Iñaki Lasa, Oinarriak taldeko eta AEK-ko kidea, Nafarroako Euskalgintza Batze Bidean izenburuko hitzaldian, gaur egun euskarak bizi duen egoeraren inguruan mintzatu zen.

Euskararen Astea joan den urtean egin zen estreinakoz Lizarran. Orduan Kilika Euskara Taldea arduratu zen prestatzeaz, eta bertan egindako mahai-inguru baten ostean, elkarlanean aritzeko beharra sumatu zen. Hala, aurtan borts elkarte batu zaizkio Kilika taldeko ekimenari: Beinat Etxepare Euskal-

Biherrik taldeak sustaturik eta beste hamasei talderekin batera, motibazio eta erabilpen kanpaina antolatu dute Sakanan, euskararen erabilera areagotzeko. Sakanako euskaldunak zirikatu, motibatu eta kontzientziatu nahi ditu kanpainak.



Kanpainaren antolatzaileek euskara bultzatu nahi dute. ● ARTXIBOKOA

EKIMENA BULTZATU DUTEN Biherrik eta beste hamasei taldeek emandako datuen arabera, 1996ko erroldan Sakanan 7.000 euskaldun inguru bizi direla ageri omen da. Euskaldunen artean euskaraz egitea garrantzitsutzat jo dute kanpainaren antolatzaileek, eta horretarako hainbat ekimen prestatu behar direla diote. Euskaldunen kopurua dezentekoa izanik ere, azpimarratu dute euskararen erabilera ez dela haren araberkoa. Hala, euskaldun franko egon arren, euskaraz mintzatzen direnak askoz gutxiago direla nabaritu dute. Herri batetik bestera ere aldatzen dira gauzak. Esaterako, Arbizun gehienak euskaraz mintzatzen dira, baina handik aski hurbil, Iturmendin, gaztelania da na-

gusi. Eskualdean euskara bultzatzea helburu duen kanpaina honen leloa hau da: *Ez dakizula norekin ihardun? Sakanan 6.863 euskaldun!* Sakanako 14 eta 16 urtetik gorako euskaldunetuzuzendutako kanpaina da bereziki. Gaztetxoon artean euskararen erabilpenaren aldeko konpromisoa lortzeko asmoz, bi bide nagusi erabiliko ditu Biherrik taldeak. Batetik, bailarako euskaldunek elkar ezagutzeko pin adierazgarri bat zabalduko zaie nahi dutenei. Hortaz, pin-a daramatenek euskaldunekin euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute aurrerantzean.

Bestetik, kanpaina parte hartuko dutenek inplikazio txartela erabiliko dute kanpaina. Pin-a eta inplikazio txartela onartzen dituztenen datuak jaso ahal izanen dituzte kanpainaren antolatzaileek aipaturiko txartelaren bitartez.

Erabilpenarekin kezkatuak

Honela, kanpaina murgiltzen diren gazteek harremana euskaraz izan dezakete aurrerantzean elkar ezagutzen duen jende horrekin guztiarekin. Era berean, informazioa jasoko dute euskararen arloan Sakanako herrietan egiten diren gauzen inguruan.

Antolatzaileek diotenez, egitasmo hau 1999ko sanjoanetan bukatuko da. Hala ere, garrantzitsutzat jotzen dute eskualdean euskara erabiltzearen aldeko sentsibilizazio lanarekin aurrerantzean ere jarraitzea. Hori dela eta, kanpaina amaitutakoan ere lan horretan jarraituko dute. Izan ere, Sakanan, Nafarroako mendialdeko beste eskualde askotan bezala, kezkatuak daude jendeak euskaraz jakin badakielako baina gutxi mintzatzen delako. Hortaz, horrelako ekimenak beharrezkoak direla diote.

→ Amaia Mundiñano

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Sanzen Gobernuak behin eta berriz erakutsi digu zenbat maite duen euskara. Hizkuntz Politikak «aski ongi funtzionatzen du bai Nafarroako Euskararen Kontseilua eratu aitzinetik, baita eratu ondotik ere». Horiexek Nafarroako Gobernuko buru (haundi)aren hitzak. Eta horrela da! Hizkuntz politika ez baita deus ere aldatu Kontseiluaren eraketarekin; UPNk euskara zanpatzen segitzen du, Kontseiluari bere lana egitea eragotzi dio, eta, noski,

Beherapenak

horixe da hizkuntz politikak ongi funtzionatzea! Honekin lotu nahi ez dudana baina lerro beretan aipatu nahi dudana bertze gai bat ere buruan dabilkit bueltaka. Nafarroan euskal komunikabideak urtetik urtera gehiago diren bitartean, hauentzako Gobernutik bideratzen diren dirulaguntzak ez dira proportzionalki haunditzen. Diru partida bera mantentzen da, baina gero eta gehiagoren artean banatu behar da pastela. Tipi-Ttapa Telebistak, berriki zazpi hilabete

bete dituen euskal komunikabideak, momentu honetan arazo ekonomiko larriak ditu, bere bizi-erapena jokoan paratzen duten arazoak. Inbertsio indartsua suposatzen duen telebista honek, diru sarrera eskasak lortu ditu. Nafarroako Gobernutik ere, espero baino gutxiago. Bertze komunikabide bat ere aipagai, Euskalerrria Irratia. Ez du lizentziarik lortu, ez diote eman. Zeinen ongi funtzionatzen duen UPNren hizkuntz politikak!

Betelu ●

Hiru urte barru zabalduko da bainuetxea

700 milioiko aurrekontuarekin, Beteluko uraren onurak baliatuko ditu

Besteak beste, inguruko zahar-etxea ere bainuetxearen barruan egongo da. Hiru hilabete barru hasiko dira lanak, eta bukatutakoan, berriro zabalik izango da. Bainuetxea 1966an itxi zuten.



Beteluko Soravilla hotolean eta inguruetan kokatuko da bainuetxe eta zahar-etxe berria.

● MIKEL SAIZ

2.400 METRO KOADROko eremua hartuko du guztira, eta Centro Termal Villa de Betelu izena izango du. Eta erabilpenak, berriz, ugariak izango dira. Ur bidezko sei tratamendu mota eskainiko ditu bainuetxeak, eta lehorrean eginiko beste bost. Errehabilitaziorako igerilekua ere izango da. Tratamendu horiek edozeinek hartu ahal izango baditu ere, batik bat bertako bi zahar-etxeetan egongo direnek jasoko dituzte.

Garai batean hainbat pertsona ospetsu eta garrantzitsuren opor-etxea izan zen Beteluko bainuetxea, baina 1966an itxi egin zuten.

Orduz geroztik, edateko ura baino ez da aprobetxatzen Betelun. Baina bertako urek badute gehiagorako propietaterik ere. Sendagarriak dira oso, Ama Iturri, Urberoa eta Iturri Santuko urak.

Lehenengo bietako ura oso mineralizazio eskasekoa omen da. Zapererik eta kolorerik gabekoa, edan eta berehala gure gorputzak asimilatu egiten du. Ondorioz, sabeleko eta giltzurrunetako

minarentzat ezin egokiagoa da. Iturri Santukoa, ordea, beroagoa da; 32 graduko tenperatura du, eta usain berezi samarra: herriko jendeak beti esan izan du arrautza ustelaren usaina duela. Hala ere, adituek esandakoaren arabera, oso osasuntsua da, batez ere, arnasketa edo eztarriko arazoak dituztenentzat.

Iturri horien ura erabiltzeko, eta batez ere egoitzak

eraikitzeko, dirua behar da. Diru asko. 700 milioi pezeta-ko aurrekontua da Beteluko Udalak esku artean duena (20 milioi libera). Horren erdia, Espainiako Sustapen Ministerioaren esku izango da, %30 Nafarroako Gobernuak ordainduko du, eta beste %20a Udalak. Hiru eraikin izango ditu guztira bainuetxeak.

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Sakanan mila lanpostu?

Sakanan mila lanpostu betetzeko jendea behar zela eta sortutako zurrumurruak ditu hizpide aste honetan **Guaixe** aldizkariak. Inguruan asko hitz egin da Sakanako enpresarien elkarteko buruak *Diario de Navarra* kazetari egin adierazpenei buruz, alderdi horrek primerako egoera ekonomikoa zuela esan baitzuen eta bertan nahikoa jende ez zegoela behar ziren lanpostuak betetzeko.

Guaixe-n azaltzen denez, INEMen dauden datuak kontuan hartuta, 559 langabetu daude Sakanan, hau da, biz-

tanleen %7,97. Hala ere, emakumezkoen artean portzentaia hori izugarri igo-tzen da: %18,53koa da, hain zuzen ere. 29 urtetik beherako 174 emakumezko daude langabezian, eta 31 gizon baka-rrik. «Beraz, egoera oso larria da emakumea eta gaztea bazara», dio **Guaixe**-k. Datu horietatik guztietatik ondorio gar-bia ateratzen du aldizkariak: «Sakanako egoera larria da, arazoa ez baita baka-rrik kopuruetan aztertu behar. Nahiz eta gizonezkoen langabezi datuak txi-kiak izan, eskualde batetik emakumeek

alde egiten badute, esan daiteke eskualde horren iraunpena kolokan dagoela».

Aldizkariak toki egin dio Joseba Salegi zinema zuzendari altsasuarraren pelikulari ere: *Ione sube al cielo*. Aktoreen artean Sakanako bi aritu dira: Anabel Arraiza lakuntzarra eta Javier Bustamante altsasuarra. Salegiren lehen filma da hau, eta zaletasuna lanbide bihurtu nahi duten guztiei omenaldia egin nahi izan diela esan du. «Gustuko duzunaz bizi ahal izateko zenbat borroka behar den erakutsi nahi izan dut».



Xabier Larraburu

Punta-puntakoa

Atzo jaiki eta Kopurudon txute bat hartu, Anibal maleteroan sartu eta Lodosako Jaurtikitze Galeria Profesionalera abiatu ginen. Anibal gaixoa zaunkaka aritu zen bidaia osoan monoak jota. Lodosara ailegatu eta krixton jendetza aurkitu genuen: Lizarrako lehiaketa gainean dugunez, jaurtitzale ohizkoek gain berriak ere baziren. Neskak ere bai, ez pentsa. Autografo batzuk banatu eta galeriako tabernara jo nuen hamaiketako hartzera. Arroza espagetiekin eta laranja zukua. Karbono hidratoak funtsezkoak dira goi mailako kirolean. Gero komunean sartu eta Enfipalidon txute bat besoan sartu nuen. Anibali beste bat sartu nion lasaitu zedin. Enfipalidona adikzioa sortzen du, hori egia da, hori du txarra, baina hortaz aparte ona da. Komune-ko lurrean etiketak irakurri nituen: Vulcanmenol, Dosietafol, Kopurudon, Xustraifel eta ezezaguna egin zitzaidan bat: Brutokunol. Komunetik atera nintzenezan kirol kazetariak niregana etorri ziren. «Ez dut adierazpenik egin nahi» -esan nien-, «ez dut Poloniako Txapel Jaurtitzailen ligara joateko inongo intenziorik». Beraiek segika - «*bainan Topakynskik esan berri du...*». Topakynski! Topakynski! Ze inozoak diren kazetariok! Han utzi nituen. Galeriara sartu eta txapelak probatzeari ekin nion. Jaurtiketa lasaiak egin nituen baina beroketetan sei-zazpi metroak lortzea erraza zaidanez jendea tropelean bildu zen niregana. Jendea atzetik xuxurluka entzuteak gustatzen zait. Ooooh! aaaahhh! eta horrelakoak. Nire atzetik «enfipalidon» hitza ađitu nuenean, aldiz, bueltatu eta «mesedez» batekin ixiltasuna eskatu nuen. Anibalek bueltan ekartzen zizkidan jaurtikitako txapelak. Enfipalidona jota, zakur txoro baten aurpegia agertzen zuen. Mementu batetik bestera hegan egingo zuela pentsatu ere egin nuen. Beroketak bukatu eta «Boinas Larrinagamendia»-rekin kontratua sinatu nuen telebistako hiru iragarkietan parte hartzeko. *Marca* egunkaria erakutsi zidaten. Nire argazki bat zekarren azalean, «Nafarroako Michael Jordan» tituluarekin. Exajerazioak. Seguru nago Jordanek txapela ez zuela ezta metro batera ere jaurtikiko. Ez dago konparatzerik.

Produkzio integratua: nekazal ekologikorako bidea edo zikin estali hutsa?

Nafarroako Gobernuak ohiko nekazal produkzioaren eta ekologikoaren artean dagoen integratua arautu berri du

Nafarroako Gobernuak ohiko nekazal produkzioaren eta ekologikoaren zubia litzatekeen produkzio integratua arautu berri du. Kontsumitzaileek gero eta elikagai osasuntsuagoak eta seguruagoak eskatzen omen dituzte eta horri erantzun behar dio merkatuak. Dena den, nekazariak, iritzi ezberdinak dituzte.

GARAI BATEKO BASERRIKO IDEA TRADIZIONALA omen da nekazaritza ekologiko eta garbiena. Lurra berez ongarrizten denez, lurrak emandako hori jan ohi du ganaduak. Baina kate hori aspalditxoan etena da toki frankotan eta nekazaritzak eta abeltzaintzak beste bide batzuk hartu dituzte. Ohiko nekazaritzak ahalik eta produkzio gehien ateratzea du helburu eta horretarako izurriteak ekiditeko produktu fitosanitarioak eta lurrari ahal den etekin gehien ateratzeko ongari kimikoak erabili ohi ditu. Haren atakaren bestaldean nekazaritza ekologikoa dago: kimikarik gabea, lur elikagaien kalitatea ongarrizte organikoan oinarritua, 0 hondakin hasieran, materia lehor gehiagokoa eta ur gutxiagoko produktuak, nutrizio oreka handiagokoa, eta bitamina eta oligoelementu kantitate gehiago... Era berean, ustiakuntzan dibertsitateak du interesa. «Lurrari txandaketa eginez, zenbat eta aniztasun gehiago, orduan eta izurrite gutxiago. Ekologikoaren helburua bi horien artean harremanak ezartzea da. Dena integratu behar da eta hasieran besterik ez gaude; landaketak, ganadutegia, merkaturatzea, ongariak eta hasieran gaude» dio Angel Mari Legasa, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko (NNPEK) zuzendari teknikoak.

Merkatuak ustez bi produkzio mota horiek bazituen, hirugarren bat gehitu nahi dio Gobernuak. «bi horien arteko konpromezu izan nahi lukeena». Foru Dekretuak dienez gutxienez kutsatzen duten produktu fitosanitarioak erabili ditzazke, sintesi ongariak bota ditzazke eta ekonomikoki erren-



Javier Mendia eta bere bazkidea. Goian eskuinaldean, izurriteak uxatzeko teknika ekologikoa udareondo batean. ● MIKEL SAIZ

Javier Mendia

«Ekologikora saltoa egiteko bidea bada, ongi dago araudia».

tagarria da. Dena dela, Europako Batasunak nekazaritza ekologikoa arautu duen moduan, integratuak oraindik ez du legerik Europa mailan. Nafarroan bada produkzio integratua koordinatzen duen batzordea eta joan den urtean zainzuria, peila eta brokoliaren araudi teknikoak onartu zen. Aurten onartzekoak dira: orburua, Tuterako kuku-lua, muxikondoa, sagarrondoa, udareondo, negutegiko letxua eta tomatearen araudiak. Gainera, produktuari salmenta tokietan nabaritutako duen ikurra ere egin zaio.

Gauzak horrela, nekazari ekoizleek begi onez ikusten dute neurria baina guztiek badute esateko gehiago.

Marketinerako tresna

Angel Mari Legasa, Nafarroako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko zuzendari teknikoaren aburuz, produkzio integratua ez da izugarria. «Ingurugiroa gehiago zaindu ingurugiroarako produktu ez oso gogorrak erabiliz. Ohiko nekazaritzaren ikuspegitik interesantea da produktu garbiagoak ikustea. Ekologikoen aldetik iruzurra da. Marketing tresna hutsa da ez delako ekologikoa, nahiz eta horrela saltzen den», dio.

Arandaren irudiko, nekazaritza ekologikoak ingurugiroaren kalitatezko kudeaketa egiteaz gain, produzitzen ditu kalitate handiko produktuak. «Nekazal integratuan beziriz, azkar desegiten diren produktu kimikoak erabiltzen direnez, uste da haren eraginak ez duela garrantzia handirik ingurugiroan. Beraz, integratuak ez du konpromezu bat ingurugiroarekin», azaldu du. Dena dela, Nafarroako Gobernuaren neurria ona dela dio, «nekazariak kezkatzen hasten direlako». Hala ere, Legasaren ustez, gakoa dago Nafarroan tratamendu eramuak zonaldeka definitzean. Araudi berriaren arabera 120 fitosanitario bakarrik erabili ditezke, errazen desegiten direnak eta onartzen den gehiengoaren erdia baino gutxiago erabili dela ziurtatzen dutenak. Beraz, horren arabera tratamendua baliagarria da etekinaren arabera eta 0 hondakin izanen ditu bukaeran. «Egin daiteke nekazaritza integratu bat gaizki egin tratamendu finkoekin. Pozoin batzuk beste batzuegatik aldatzeak ez dakar pentsakera aldaketa, ez da benetazko ingurugiro proposamenik eta makilaje hutsa da» berretsi du Legasak.

Arandaren ustez, integratua atera da transizio moduan ohikoaren (gogorra eta kutsatzailea) eta ekologikoaren bidean. Baina berandu bururatu zaiela uste du, orain eskaera guztia integratua omen delako.

Europatik urrun

Produktu integratua nekazaritza ekologikora dela ulertzen bada Europatik hurbil Nafarroa. 1991an arautu zen Euro Batasunean nekazaritza ekologiko 1996an Nafarroan. Orduan 0,5 milioi ha inguruko Euro Batasunean eta 4000 milioi ha baino gehiago dira. Euro Batzuek 1,3 milioi ha dira eta hain Nafarroa oso behiti dago. «Hengaratuena egin dute apostua kontzaleek herri horretako nekazari

rik egindakoa kontsumitu dezaten» dio Legasak. Nafarroan ez da 0,5 ha. ra iristen nekazaritza ekologikoa, ardoa salbu, %2ha baititu. «Abeltzaintzan eta mahastigintzan garapen handia suertatzen ari da jendeak haragian eta ardoan bilatzen delako kalitatea. Nazioarteko merkatuak horrela eskatzen dielako eta haragian sinesgarritasun falta izan delako behi zoroen aferan. Hor hazten ari gara asko», azpimarratu du. Nafarroan 138 nekazari ekologiko daude

«Hortuarietan eta frutondotan ohikoa desagertu egin da. Orain bi nekazaritza daude: integratua eta ekologikoa. Baina bi gauza oso ezberdinak dira.»

«Nekazariak produktore bat baino gehiago naturaren kudeatzaile izan behar du. Errentagarria izan behar du baino beste modu batean produzitu behar da. Ez bakarrik elikagaiak produzitzea zuzen ikuspegi hori bakarrik baduzu osasuntsua produzitzearekin nahikoa duzu. Baina praktikan unbralen definizio teknikoak duzu eta zuzen kudeatzen dituzte zure izurriteak», dio. «Elkarbizitzaren kontzeptua barneratu behar da eta ez suntsiketarena. Izurriteekin elkarbizitzen dugu, funtzio bat dutekako, baina jakinda noraino hel gaitzekin gainerakoan esku sartu behar delako», gaineratu du.


Ohikotik ekologikora

Javier Mendia eta Pedro Gumiel Sartagudako bi nekazari dira. Gumiel Elkarte Muga-tuko kide dira eta 70ha. dituzte Lodosan, Pradejon eta Calahorran (Errioxa); 50ha



Nekazaritza Ekologikoa Nafarroan

Landutako azalera



Azalera eta Nekazaritza Ekologiko gune kopurua



ITURRIA: Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua

J. APEZTEGIA

ez zen beste batzuek hartu zituzten. Udareondo ha. batekin hasi ziren Lodosan eta egun beste 69 ha. dituzte. «Produkzioak gora egin zuen, lur gehiago alokatu behar izan genituen, gure enpresa montatu eta orain lan asko dugu. Frutondoetan espezializatzeak gabilta» diote pozik. «Nekazaritza ekologikoa beldurra kentzera animatuko nuke ohikoan dabilena. Sei urte daramagu honetan. Hasieran gogorra izan zen. Zorriak eskuekin kendu izan genituen, baina ekaina iritsi zen eta hil egin zituen onto natural batek eta oso uztza ona izan genuen», gogoratu du irrifartsu.

Bion ustez, Gobernuak arautu berri duena ongi dago, beti ere, «ekologikora saltoa egiteko bidea bada, baina ohikoaren zikin estalia bada ez dugu nahi», diote. «Ez dago kalitatea baldintzatzerik. Elikagai natural eta orekatu bat jan, edo ezorekatu eta produktu kimikoekin estimulatutakoaren artean ez dago alderik», bukatu dute. Bada neurriarekin zer eginen duen ere ez dakienik. Juan Carlos Espinosa, 34 urteko Sartagudako nekazaria da. Muxika, letxua negutegian zein kanpoan eta kolifloralantzen ditu. Guztira 6ha. frutondoekin eta 3000 metro negutegi.

«Nekazari ekologikoen iritzi bera dut. Produkzio integratuaren arazoa da etiketa hutsen geratzea merkaturatzeko eta ez sakondu produkzio integratuaren filosofian. Hori da arazoa. Produkzio integratua ona da nekazariarentzat eta gure ingurugiroaren ondorengorik Europako Batasuneke direla guntzekin Nafarroako Institutu Teknikoak talde bat osatu zuen hiru urteko nekazal programa integratua egiteko. Emaizta onak ikusirik, eta programak aurrera jarraitu ez bazuen ere, Mendiak eta Gumielek arriskatzea erabaki zuten. Sartagudan zituzten lurak alokatu eta ohiko nekazaritza egiten

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Biktoriano Iraolaren txoriak

Aurreko astean Biktoriano Iraolaren gaineko zein berak sortutako lan literarioei buruzko hainbat aipu labor txoko honetan eman baguen, gaurkoan txoriak izkiriagai harturik pasaitarrak ondutako bertsoak ekarri nahi ditugu gogora, Iraolak idatzi poesiagintzaren altxorrik preziatuena delakoan



EZ DIRA LUZEEGIAK TXORIEK euskal literaturan egin ahal izan dituzten hegaldiak; Richard Bach bezalakorik gurean ez dela egon oroitaraztea soberan dateke. Txoriak sugeari begiratzen dionean badugula onartu arren. Egia esan, txoriek oroz gain bereganatu ahal izan duten arreta bakarra izendegiari dohakiona izan da. eta gisa horretan, ugariak izan dira txorien izenekin tajutu izan diren hainbat eta hainbat zerrenda. Adibide batzuk ematearren, hor dugu Pedro Sansinea Lekunberririk 1908.ean egin *Catálogo descriptivo de la colección de aves e insectos legada a la Exma. Diputación de Guipúzcoa por el finado Don Angel de Larrinua*. Garai beretsukoa da Telesforo Aranzadiren *Nombres vascos de las aves 1909*.eko RIEV-en agertu zena. Jean Elissalde eta Louis Dassance Euskal Herriko txoriei buruzko berriak 1923.ean hasi ziren ematen *Gure Herria* aldizkarian. *Euskal Herriko hegaztiak eta txoriak*. Iparraldetik atera gabe, Pedro Garmendia saratarrak, *Nombres de aves en euskera* izenburuko artikulua argitzera eman zuen RIEV aldizkarian, 1934. urtean. Martin Itziar Agirrek, berriz, *Gure txoriak* izenburuko liburua eskeini zigun 1966.ean -Kuliska sorta 62. zenbakia-, bertan, eta elkarrizketa moduan tajaturik, Euskal Herrian ikus daitezkeen 240 inguruko txoriren zerrenda luzea agertzen zuelarik. Azkenik, aipa dezagun Juan San Martinek 1978.eko *Euskara* aldizkarian agertu *Txori izenak Eibarren* artikuluxka, ehun pasatxoko txori izen zerrenda, hots.



Gure Iraolarengana arraitzul gaitezen. Honek, 1913. eta 1914. urtetako *Euskal Esnalea* aldizkarian dozena pare bat txoriri eskeini bertsoak agertarazi zituen, alabaina, bertsoak ondu zituenean hagitzez gazteago zela pentsa liteke, izan ere, honela baitzioten editoreek estraineoan: «Choriz betetako idatzi polit-polit bat bidaldu digu gure adiskide Biktoriano Iraola jaunak. Gaur dakargu *Euskal esnalea*-ra lendarbiziko choria, apurka-apurka guztiak azalduko ditugu. Irakurri bada, batere utzi gabe!». Argitara emaniko lehenbiziko bertsoak, bost ahapaldi osotara, Txuari eskeini zizkion (*Phylloscopus collybita*): «Berde azeitun kolorekoa / Argisiago pechu aldera / Begi biziya moko chusena / Lar chori eta chepech antzera».

Agertu bigarren txoria «*Pinchana*» izan zen (*Saxicola*): «Lepondua ta kaskua belchak / Bizkarren gaña urdin argiya / Guztizko gorri politekua / Pechuba eta lepo azpiya». Orok ezaguna dugun txantxangorriak (*Erithacus rubecula*) zortzi ahapaldi erdietsi zizkion Iraolari: «Nork ezagutzen eztu lur ontan / Nork, gure chanchangorriya / Jostallu eziñ egona eta / Bide chokoko choriya?». Txantxangorriaren bertsook bigarren agertu zituen Iraolak 1932.eko *Bertsolariya* aldizkarian.

Martin arrantzaliaz (*Alcedo atthis*) sei bertso ondu zituen Pasaikoak: «Itsas egazti begi zorrotza / Kolorez guztizko fiña / Kasko berdia moko lusia / Bizkarra berde urdiña». Mikariburuz (*Pica-pica*), aldiz, zortzi ahapaldi idatzi zizkigun Iraolak: «Gutziz da chori eder pozduna / Egokiya ta liraña / Da-

ma gazte bat beziñ airosa / Bera dan beziñ apaña». Zerrendan hurrengo irairra izan zen (*Apus-apus*): 2Jazkeren luma eder guziyak / Belch dizdizari brontziatuak / Moko azpiyan mancha churiya / Begiyak belchak eta eguak».

«Nork eztu emen ezagutuzten / Begi zorrotzdun chori alaya / Soso jantzi belch moko oriya / Urase bera bezin galaya» lerroekin hasiera eman zion errexinolaren omenezko bertsoei (*Luscinia megarhynchos*). Eta 1913.eko segidari amaiera emateko txepetxari eginikoak ditugu gustagarri (*Troglodytes*): «Chori jakintsu begi ernaya / Moko chusena kasko sanpala / Lur gorrizatu kolorekoa / Gorputz mocha ta egala sabala».

Bigarren urtean agerturiko txorien zerrenda luzexkagoa izan zen. Enada edo bragada (*Hirundo rustica*) izan zen lehenbizikoa: «Arrazoi aundiz chori noblia / Antziñatik da izentatua / Ezta bakarrik elkargarriya / Baizik jostallu ta jakintsua». Ondoan txirita, zozua (*Turdus merula*), txoka (*Acanthis*), tximiska, gurita (*Anthus*), bordoya, iskiñosua (*Garrulus glandarius*), tariña (*Carduelis spinus*), pirripiyua (*Lullula arborea*), lartxoriya (*Calandra*), pareta txoriya, ontza (*Otus*), kukuba (*Cuculus canorus*), belia (*Corvus*) eta karnaba (*Karduelis*) datoz: «Ezta izango pachandioso / Aundiya-gorik gure mendiyen / Dirudiyela eziñ kabitu / Dala askotan leku chikiyan». Zein baino zein bitxiago eta harrigarriago. Txori hauen gainean Iraolak idatzi bertsoak hartuta eta hegazti bakoitzaren irudiarekin zein ezaugarriekin edizio berezia egitea ez litzateke lan txarregirik gertatuko, eta bati baino gehiagori berebiziko laketa emanen liokeela segur bagaude.

etorri ahalean

Patziku Perurena

Mitomania ergelkerien estalgarri

DEMAGUN OLENTZERO hitzak, J.M. Satrustegik sinalatu duen gisan, oles aroa esan nahi duela: «olesen aro, época o tiempo de las cuetaciones, que luego derivaría a olentsen-aro/olentzen-aro, y definitivamente Olentzaro».

Hendaian jasotako kanta:
Hemen degu ikazkiña
mendiko gaizkin zikiña
beltz beltza dauka arima
eta Mikelats izena.
Guk bilduta hor da preso
ondo dator Olentzero.

Arrunt ongi dator, uste hori, garaiarekin. Hain zuzen ere, uzta garaia bukatzean, eta ondorioz ahora zer eramana bukatzean, negu aldera ugaltzen baitziren eske kontuak eta kantuak gure alderdi honetan, batez ere Frainzi aldetik, Santiobidea barrera. San Nikolas, Santa Ageda, Santa Luzia, San Blas... eta beste santu errukarri ugari ditugu garai eta usuario horren leku-zahar.

Kanta honetan, badirudi Mikelats dela olesarorako nortu den pertsonaia gaiztoa. Nola ulertu behar da hor, orduan, Mikelats eta Olentzero hitzen semantika?

Oles egiteko, motxean esanda, bi aitzaki zeuden: santu baten sofrikarioa inbokatzu (koplatuz), edota nolanahiko herrifetatan: Eguberrian, Erregetan, Ihautetan... jende izandun guztiagan errukia sorrarazi. Horratx erromes, behartsu, edo dena delako bagamunduen aspal-diko martingala.

Egia esan, Orentzeroren itzalpean ageri diren pantomima ugari guzien izakera bete batean dator goian aipaturiko horrekin: basotik datorren arrotza, zikina, gaizki jantzia, pobrea, gaiztoa, herriko umeak bildurtzen dituen, lapurra, triperoa, mozkorra, pipa erretzailea, eta betiere ikazkina.

Kontuak hola, gure Orentzero, gizajo eskazale alprojaren pantomima tipikoa da, kristau eredu eta beste marginalia guziaz nahastuz edo elkarren aurka paratuz ageri diren *Zanpantzar*, *Ziripot*, *Joanagorri*, *Mielotxin*, *Kaskarot* eta gisakozen zakuan sartu behartakoa, eta Eguberrietan «berri ona» aitzaki, eskera, lapurretara eta triperotzara datorrena. Orentzerori buruzko sineste kontu eta kantu ugariak erne begiratzea aski. (Ikus: Cuader. de E. y E. de Navar. 51, 5-21 orriak)

Horratx gure alderdiotako ikazkinen irudia xehero azaldurik. Zergatik ordea? Julio Carok eta beste antropologo zenbaitek argi samar utzi zuten, Andaluzian eta bestetan jito kastakoak zirela langite horretan maizenik arituak, eta «*gitano y carbonero eran casi sinónimos*». Baina guk, beti bezala, vasconismo zahar garbia ergelkiro mitifikatuz paleolitoraino eramanez dugu atzo goizeko ikazkinen gizaera mixeralea. Eta ez gaizpentsurik niri: larogeitik goiti doan aita bera baitut nik ikazkin mixerale izandua!

Niri sinesgarri samar egiten zait Satrustegiren susmoa, *subilaro* ezezik *berbaro* bezalako hitzen semantika edo sorrera ahaztu barik. Baina, nola liteke ordea, Satrustegi jaunaren «Oles aro» delakoa pertsona bereiz eta jakin baten izen bihurtu izana? Bestela esan, *Oles aro* hark gure egungo Orentzero hau nortu (pertsonifikatu) izana? Nerè zantalza azaltzeko, hona P. Lafittek

Horraxegatik ema ten dit zer pentsatua, konparazio batera, euskal ikazkin mitifikatuari buruzko azken filmaketa fantastikoak Oartzun aldean egin izanak, batez ere, bailara hori jito kastako jende ugari emana dela jakinik; joan den lahun urteko artxibo zaharretan sumatu dudana gainera, maiz aditua baina Basaburu alde honetan: «*Oartzun aldetik etorrie, jito kastakoa zela edo esaten tzuen*».

Eta nongoa da Orentzero, endemas aldeotako baso oihantsu eta ikazleku oparonekoa ez bada? Aze poza nerea, kalekume txuriori jostailu gezurrezkoak lapurtu eta zinezko izu eder pixkot partitzen hasiko balitz atzera.

Ziria

Demokratak

BILTZEA, HITZ EGITEA, EZTABAIDATZEA, DEMOKRAZIAREN KONTRAKOABIHURTZEN ari den honetan, pertsona bat baino gehiago komunitate osoaren ordezkartza hartzeko prest dago.

Oharra: Arazo teknikoak zirela eta, igaro astean Joxemiel Bidadorren azken lanaren orde, aurreko aste-koa errepikatu genuen. Kaleak kale, eta barkamena eskatuz, goiko duzue da testu egokia.


Eneka Maiz

Filologoa

«Poesia euskalkian ere egin daiteke»

Etxarrietik Sakanerara liburua aurkeztu berri dute Eneka Maiz eta Iñaki Mundiñano filologo etxarriarrek, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikaren eskutik argitaratuta.

Herriko hizkera, erabili eta idazteko oharrak, batuarekiko loturak aztertu dituzte bi egileek, Sakanan egiten diren euskaren arau komun bidez halako proposamen eta aholkuak hiztunei luzatzeko.



solaia

MIKEL UHARTE

ETA IRAKURLEEI, HAU BAITA liburua sortu duen hondarreko asma. Maiz eta Mundiñano *Guaixe* aldizkaria bultzatu duen Bierrik elkar-teko partaideak izaki, argital-pena sortu zenetik ikusi zuten idazkera «anarkiko samarra» zela, ez baitzegoen irizpiderik, eta batuan idazten zena ere ez baitzen bertako hizkerari egokitu. «Ikusi genuen bazegoela zeozer interesgarria egiteko tokia, ez hainbeste dialektologikoki, baizik eta soziolinguistikara eta praktikara, komunikabideetara, aplikatutako dialektologiaren ikuspuntutik», dio Eneka Maizek. Abiapuntu gisa prestatu zuten txosten bat, euskalkian idazteko oinarriko arauekin, eta gero hortik abiatu ziren liburua osatzeko.

■ **Etxarrietik Sakanerara da liburua izena, baina nahasgarri gerta dakioke bati baino gehiagori. Etxarriera edo sakanera aztertzen duzue?**

Bi zati ditu liburua: bat etxarrietik dagokio eta bestea sakanerari. Etxarrietik dagokionez, ez dugu inola ere egiten azterketa dialektologikoa —taula guztiak jarri eta—, baina bertako ezaugarri nabarmenak —bultzatu behar direnak, oso ongi eza-gutzen ez direnak— hartu ditugu, jarri, eta aholkatzen ditugu, erabili daitezkeen. Hau da, planteamendu didaktikoa du lanak. Bestetik, sakanera

—ausardia handiz— deitu duguna aztertzeke, hartu ditugu bertako euskalkietatik ezaugarri komunak, eta horrela osatu dugu bertako hiztegia eta morfologia, baina denak batera hartuta. Beharbada sakanera berez ez da existitzen, hiru euskalkiren gurutzatzea delako, baina badaude hainbat euskalki bertan daudenak eta jakin egin behar direnak, bai prentsan idazteko, bai erabiltzeko. Dagoena jarri dugu, beraz.

■ **Hizkuntz gurutzaketa handia izanda, horrek egiten du euskara aberatsago, kaotikoago?**

Dudarik gabe, aberatsago. Kaotiko ez da hitza. Sortzen dira duda gehiago hizkuntz eredu jartzerakoan bertan, eta bertakoa zer den argitzea zailagoa da, baina askoz interesgarriagoa da horregatik.

■ **Zuek egingo duzue, batez ere, aholkuak eman hau edo hura erabiltzeko, inoiz ez arauak finkatu.**

Hori da. Ez da arau emalea inolaz ere, baina ildo edo aholkuak ematen dira bertan zer dagoen esanez. Ematen ditugu jakin daitezkeen, jendeak gero erabil dezan nahi duena.

■ **Ezezagun samarra da Sakanan egiten den euskara, eta, bestaldetik, exotiko ere gertatzen zaio askori. Zergatik? Sakanako hizkerari ema-**

Eneka Maiz etxarriarrek duela sei urte amaitu zituen Euskal Filologia ikasketak, eta Etxarri-Aranazko hizkera aztertzeari ekin zion. Iñaki Mundiñanok orain bi urte atera zuen titulua, eta bera ere Sakanan egiten den euskaren mugak, nondik norakoak, berezitasunak... kuskuseatzen hasi zen.

Biek Etxarriko Andra Mari ikastolan dihardute egun. Eneka DBHko euskara irakaslea da, eta Iñaki laguntza irakasle Lehen Hezkuntzan. Bierrik elkartean euskara batzordean daude sartuta, eta, onartzen dutenez, filologia lanak «oso gustukoak» dituzte.

Liburuaren aurkezpena joan den astean egin zuten Iruñean, eta biek azpimarratu zuten irakaskuntzara eta komunikabideetara zuzendutako liburua dela hau. «Haurrek bertako eredu jakintza txikitatik jaso dezaten liburu aproposa da, eta baita Sakanako euskaldun guztientzat lan polita ere», esan zuten. Halaber, herriko hizkeraren eta euskara batuztat hartu ohi denaren arteko zubi-lana egin nahi izan dute, herriko hizkera euskara estandarrean txertatzeko.

ten dion exotikotasuna izan daiteke Koldo Mitxelena definitu zuen «arabera zaharra» euskalkiaren presentzia. Mitxelena ikertu zuen, ikusi zuen ez zela ez bizkaiera ez gipuzkera, eta antzeman zuen Sakanan, eta Burundian bereziki, bazeudela arabera zahar horren aztarnak. Beraz, hor badaude forma exotiko samarrak, horren ondorioz. Gero, bestetik, nafarrera gehi gipuzkera gehitzen badiozu horri, halako kotel berezi bat sortzen da eta horrek ematen dio exotikotasuna.

■ **Uste duzue jendeak baduela hizkuntz batasunaren kontzientziarik? Urdiango edo Arruazuko bat sentitzen direla, linguistikoki, Sakanako?**

Ez, eta orain hasi da gai hori mahai gainean jartzen, kontzientzia pizten, baina oso berria da hori, bai Sakanan baita Euskal Herrian.

■ **Horrek adierazten du, adibidez, zergatik *Guaixe* aldizkarian herri batzuetako kronikak bertako hizkeran ematen diren?**

Hori izan da *Guaixe* aldizkariaren irizpidea hasieratik. Etxarri-Aranatz, Ergoiena, Lizarragabengoa, Urdiain, Arbizu, Arruazu eta Lakuntzako herrietako berriak bertan egiten den bezala ematen dira, horrela erabaki delako.

■ **Horri buruz eztabaida dago baita herri aldizkarien barruan ere, eta *Arrasate Press*-ek iaz antolatu zituen jardunaldietan esan izan zen bertako euskal-**

bia bultzatu bai baina eredu gutxienera batzuk ezarri behar zirela. Zuei zer iruditzen zaizue?

Guri ongi iruditzen zaigu euskalkiei tokia ematea, baldin eta ongi islatzen bada, ongi arautua, euskalkia azaldu eta zabaltzeko modua delako. Eztabaida hor dago nolana ere, oso pil-pilean dagoen gaia da.

■ **Euskalkiei buruz liburu batzuk ateratzen ari dira Nafarroan, eta aurrean bertan zuena eta Mikel Olanok Areso eta Leitzako euskarari buruz ateratakoa hor dago, nahiz eta biak desberdin samarrak izan. Zertarako balio dute lan hauek?**

Guk uste dugu balio izango dutela jabetzeko bertako hizkuntz aniztasuna eta eredu zein den eta adierazteko bere euskara. Bere euskara maila kultoan esan nahi da, estandarra, batua. Bere hizkuntza sakondu eta hobetzeko, dudarik gabe.

■ **Behin Patziku Perurenak esan zion Olanori berari hobe zuela lan hauek utzi, ez zutela ezertarako balio, eta poesia egin.**

Poesia euskalkian ere egin daitekeela, eta horretarako liburu hau oso praktikoa izan daitekeela esango genioke guk Patziku Perurenari.

→ Alberto Barandiaran



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Ilara lotsagarria

BERRIKI IRAKURRI DUDAN LIBURU batean honako pentsamendu sakon bezain sinplea azpimarratzen zen (bide batez erranen dut sinpletasuna eta sakontasuna, batzuek kontrakoa uste izan arren, ez direla elkarren etsai): Teknologia berrien ondorioz mundua gero eta txikiagoa dela sinestarazi nahi digute eta, aldi berean, gizakia inguruan duenari begiratzeko ahalmena galtzen ari da.

Urtarrileko lau gau eta hiru egunez ilara lotsagarrian egon diren magrebier eta beste lekutako inmigranteak ikustean horixe etorri zitzaizdan gogora. Ehunka gixajo ziren, nor bere tragediarekin, guztiak paper bat helburutzat zutela, paper triste bat esperantzari eusten segitzeko.

Gurean maiz antolatu ohi diren kontzentrazioek komunikabideen oihartzuna bilatzen dute. Inmigranteenak, aldiz, ez zuen xede hori, nahi gabe bihurtu dira albiste. Izan ere, irudiaren erresuman beltz eta erdi-beltz pila bat urtarrileko egunik hotzenetan ilara ergel batean ikustek merezi du pare bat minutu telebistan. Kurioso, behintzat, bada.

«Espainiako polizia azaldu arte jendea ez zen lasaitu» zioen egunkari honetan berean argitaratutako albisteak. Tira, tragediaren tamaina kontuan hartuta huskeria izanagatik, poliziak kontzentrazio bateko jendea lasai dezakeela jakitea ere kuriosoa da.

Ilara desagertuta, inmigrante horiek nola edo hala segituko dute gure artean baina guregandik urrun. Gu, bitartean, Interneten sartuko gara Kanadan argitaratzen omen den aldizkari pornoa aurkitzeko asmoz. Eta heldu den urterako Espainiako Lan Ministerioak arazoa konponduko duelakoan nago. Izan ere, Baionako Etorbidean pasean dabilenarentzat beltz horiek guztiak ikustea ez da batere atsegina. Aurkituko dute herrixka global honetatik ateratzeko modurik.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Aitzoain:**

Dragon Lord taldearen kontzertua izanen da gaur Artsaian, 23:00etan.

► **Elizondo:**

Sutra taldeak joko du gaur Casino tabernan, 22:30etatik aitzina.

► **Tafalla:**

Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du Santa Maria elizan gaur, 20:30etan. Besteak beste, J. Strauss eta Beethovenen lanak interpretatuko ditu.

ANTZERKIA

► **Iruñea:**

XXL taldeak *El culebrón portátil: Soy de España. Melilla tuvo que ser* lana taularatuko du bihar eta etzi, 20:00etan, eta ostegunean, 20:30etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

ERAKUSKETAK

► **Iruñea:**

San Antonioko elizaren behealdean Kaputxinoen bizitzaren inguruko erakusketa ikus daiteke astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

► **Tafalla:**

Pablo Picassoren *Suite Vollard* izeneko grabatuak ikusteko aukera dago kultur patronatuan.

ZINEMA

► **Iruñea:**

Karrikiri Elkarteak antolatuta, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur *Errebelde baten egunkaria* pelikula emanen dute, 20:00etan. Aurretik 4. galeriatik film laburra eskainiko da.

BERTSOLARIAK

► **Lizarra:**

Bertso afaria izanen da gaur 21:00etan. Bertso kantari ari-

ko dira A. Penagarikano eta Aitor Mendiluze.

► **Lesaka:**

Bertso trama antolatu da Arrano elkarteetan. Jon Maia eta Igor Elortza bertsoetan ariko dira gaur, Josu Goikoetxearen gidaritzapean, 22:00etan.

BESTELAKOAK

► **Iruñea:**

Daniel Bidaurretak *Yemen, reino olvidado* diapositiba emanaldia eskainiko du gaur Nafarroako Kirol Elkarteetan, 20:00etan. Bestalde, elkartek mendi ibilaldia antolatu du etziko. Zeharkaldia Aurkitz eta Arantzan barna egiten da. Parte hartu nahi duenak elkartek duen egoitzara zuzendu behar du edo 22-43-24 telefonora deitu.

► **Lizarra:**

VI. Txapelada eginen du etzi Nafarroako Txapelzaleak elkarteak. Txapela zeinek urrutiago bota izanen da lehiaketa. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala ondo telefonoa: 609-408204

► **Elizondo:**

Baztandarren Biltzarren egoitzan Juan Luis Zabala idazlea *Galduta* bere lanaz mintzatuko da gaur, 20:30etan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



O probe Xan.

Joane gizajoa